

BESTE BAT ETXEAN

Egun normal bat zen. Normalegia, agian. Amatxo eta biok afaltzen ari ginen; aitatxo, berriz, lanean zegoen, eta, beti bezala, bederatzietan iritsiko zen. Telebista ikusi 10 bat minutu, hortzak garbitu, eta aitatxok ipuin bat kontatuko zidan; beti bezala lo hartu, eta beste egun zoragarri bat etorriko zen.

Ba ez. Oso oker nengoen. Baina itxaron pixka batean; lehenik eta behin, neure burua aurkeztuko dut. Ane Iraegi naiz eta 10 urte ditut. Nire ahizparen urtebetetzea da, eta oparirik egin ez diodanez, bera jaio zen eguna kontatuko diot idatzita, handia egiten denean berak irakur dezan.

Denak zurekin daude: aitona, amona, lehengusuak... Eta, nola ez, aita eta ama. Bakarrik geratu naiz, eta nire bizilagunaren etxera joan naiz. Maria du izena, eta denak zurekin daudenean, eta jeloskor nagoenean, beraren etxera joaten naiz eta txokolatezko tarta janez eta telebista ikusiz orduak pasatzen ditut hemen. Mariaren etxean nagoela, bada, jaio zinen eguna gogoratu dut.

Esan dudan bezala, oso oker nengoen egun hura egun arrunta izango zela pentsatu nuenean. Aita afaltzen ari ginela iritsi zen. Mahaian eseri zen, amari bi musu eman zizkion, eta biek batera begiratu zidaten. Amatxok eta aitatxok, alegia.

Amatxok zerbait garrantzitsua esan behar duenean jartzen duen aurpegia zeukan. Aitari, berriz, kristoren irribarrea atera zitzaion eta... Tatxan! Amak hitz magikoak esan zituen:

—Ane, ahizpatxo bat edukiko duzu.

Begiak handi-handi egin zitzaizkidan, malkoz bete ziren eta negar batean logelara joan nintzen.

Hasieran ez nekien zergatik hasi nintzen negarrez; momentuko ezustea-edo. Baina buruari bueltak eta bueltak ematen, pentsatu nuen jada jostailu guztiak ez zirela niretzat izango, amak ez zidala hainbeste kasu egingo, amonak ez zidala hainbeste arropa erosiko, eta agian, zu handia egiten zinenean, ni baino politagoa eta azkarragoa izango zinela. Inork ez ninduea maiteko pentsatu nuen, neure lekua kenduko zenidala-edo.

Nire gelako askok bazeukaten anai-arrebaren bat. Beti esaten zuten egundoko zortea nuela alaba bakarra izateagatik, askoz hobe dela, dena zuretzat da-eta. Eta ez daukazu inor, inon eta inoiz, eskuak zure jostailueta sartzen.

Nire beste lagun batek, berriz, Iratik, anaia zaharrago bat zuen, Iñigo, eta Iratiren etxera joaten nintzen bakoitzean guk egindako bitxokeria guztiak Iñigori leporatzen zizkion Iratik. Pentsatu nuen, Sara, zuk berdin egingo zenidala.

Urtarrilak 19. Larunbatetan joaten garen jatetxean geunden. Gaueko zortziak ziren. Danborrada bezperako entsaioa jadanik hasia. Ama tripako minez omen zen, edo horrelako zerbait, pelikuletan bezala. Aitaxok amatxo kotxean hartu, eta ospitalera eraman zuen. Aitak amonari deitu zion, nirekin gaua pasa zezan. Aitonak amona eta biok automobilean etxera eraman gintuen.

Amonaren etxea politena zen eta Kontxa guztia ikusten zen, eta hantxe eseri ginen biok kolakao bero bat hartuz. Amonari ea zu jaiotakoan gutxiago maiteko al ninduen galdetu nion, ea dena aldatuko zen eta zuri bakarrik egingo al zizuten kasu. Amonak ea txoratuta ote nengoen galdetu zidan, ni beti maiteko ninduela inor ez bezala.

Hori entzundakoan asko lasaitu nintzen. Aitak etxera deitu zuen, ama jadanik kirotanoan sartu zutela esanez. Dena ondo. Baina ama eta aita oso urduri zeuden. Dakizun bezala, aita urduri dagoenean asko nabarmentzen zaio.

Lo hartu nuen olatuen hotsekin. Goiza iritsi, eta aita etorri zen denen bila, zu ikustera joateko. Kristoren nerbioak nituen: polita izango al zinen?

Iritsi ginen; 365. gela. Atea ireki, barrura sartu, eta han zegoen jende mordoa amatxorentzako opariz beteta! Niri ere ekarri zidaten opari pila. Amari musu bat eman nion; altxatzerakoan eskuinera begiratu nuen, eta hantxe zeunden, Sara, lo.

Aingeru bat ematen zenuen. Polit-polita zinen, hanka txiki-txikiak zenezkan eta eskuak, berriz, oraindik eta txikiagoak. Ezin izan nion negarrari eutsi, eta negarrez hasi nintzen, oraingo honetan ere ez dakit zergatik. Besoetan hartu zintudan eta musutxo bat eman nizun.

Egia esan, urtebete pasa da, eta oso ondo joan da dena. Oporretara joan gara 3 aldiz urtean, eta batean kuzeroan gainera. Urtero joaten ginen, baina zu jaiotakoan dena aldatuko zela pentsatu nuen. Txikiegia zinela-edo. Behin edo behin hartu dizkidazu jostailuak, baina nik esandakoan itzuli dizkidazu. Eta nik nahi izan dudana ikusi izan dut beti telebistan, txikia zarelako. Egia esan, asko maite zaitut. Ni ikusterakoan irribarrea ateratzen zaizu gainera, eta ni ez nagoenean negarrez hasten zara. Egia esan, ez dakit zer nabilen hemen Mariaren etxeko izkina honetan idazten. Gainera nire ahizpa zara, eta kosta egiten zait hau esatea, baina maite zaitut. Buff... Oraintxe bertan norbaitek tinbrea jo du. Ama-edo izango da. Maria atera irekitzera joan da.

Ama da! Negarrez omen zaude, eta zorionak abesten bukatu dutenean "Ane" esan omen duzu; inoiz esan duzun lehenengo hitza izan da! Jolin, hasieran gogaikarria izango zinela pentsatu nuen, baina oraintxe konturatzen naiz zenbat maite zaitudan...

Tira, ez naiz gehiago enrollatuko. Banoa, amonak egindako tarta jatera. Maite zaitut, Sara.